
DEUSTU'KO IKASTETXE NAGUSIAN

MAI-INGURUA

(Bizkai'ko euskerea gai dala)

Abenduaren amabigarren egunean, Deustu'ko Ikastetxe Nagusian Mai-Inguru oargarri bat izan zan, Bizkai'ko euskerea gai zala. Ekintza au gertatu eta antolatu ebenai esker ona agertzen dautsegu idazki onen bidez.

Maiaren eratzaile Patxi Altuna aita josulaguna izan zan. Zeatz eta zorrotz egin eban bere lana, naizta erreza izan ez. Eta erreza ez zala izan esan bear, kidekoak asko izan zirako eta esanbearrak edo esangurak be ez

Patxi'ren esker-eskuman beste sei mai-kide izan ziran eta bakoitxari amar minutu emon jakozan bere gai-arloa azaltzeko. Gero guztientzat itaun bat eta maian ez egozanen itaunak.

Joseba Lakarra'k: Bizkaiera len zelakoa izan zan azaldu eban. Jakiña dan arazo erantzun bako bat: Euskalkiak euskera batetik sortuak diran eta alkarra-gandik urrintzen doazen ala asieratik ezbaridiñak izan eta alkartzera doazen. Geienak uste dabenez, euskera batetik sortuak dirala esan eban. Gero Araba'ko euske-rearen arazoa aztertu eta euskalkien balioa otzitu egin eban, euskera osoarena berotzeko. Emen esan eban olako zerbaiz: "Bizkaiko euskalkia galdu an-en ajolarik ez, euskereak bizirik urten ezker".

Alfonso Irigoien'ek: Lenagoko idazkiai buruz egin eban berba, antxiñako kristiñau-ikasbideetatik asi eta gaur arte. Batua ez doala, esan eban, euskalkien aurka, baiña berak batuz egin eban berba.

Abel Muniategi'k: Bizkai'ko euskereak erri-zaintza edo "administraziñoa" daukan lekua aztertu eban, mailla ezbaridiñak kontuan artuta: laterri -erakundeetan, Jabetzadun Alkartearenetan, eskualdekoetan eta Aldundi-maillan, Udaletxeetan, gudarostearen erakundeetan, epaitegietan... Batzutan erabilten da Bizkai'ko euskerea, baiña gitxi eta bizkaieraz idazten daben Udal-Batzak be ez dira asko, Bermeo'koa ta besteren bat.

Erroman Berriozabal'ek: Euskalkien eta batuaren arteko goraberak aztertu ebazan. Erabillera erreza

indartu bear da eta euskalkia ondo ezagutzen danean sartu batura. Batua ez dago euskalkien aurka eta au sarritan entzuten dan gauzea izan arren, bizkaiko euskerea ez da arloteen izkuntza.

Laura Uruburu'k: Ikastegietan bizkaiera zelan dagoan aztertu eban eta jokera bi agertzen dirala esan eban, gitxiengoaren jokera dana bizkaieraz irakasten dabenena eta geiengoarena dana batuz irakasten dabenena. Arlo orretara politika-jokoa be sartu da eta bizkaiera erabiltea atzerakuntza lez agertzen dabela batzuk eta alderdi politiko bateri ezarri, batua erabiltea oster aurrerakuntza lez agertu eta beste alderdi bateri ezarten jakola. Ikastegi batzutan txiki-txikitatik beartzen dira umeak batuz berba egitera. Itzaldi labur onen osten entzun ziran lenengo txaloak.

Igone Etxebarría'k: Bizkaiera Euskal Irrati ta Telebistan zelan dagoan agertu eban. Oneri be txaloak jo jakozan azkenean. Ederto egin eban berba.

Eratzailea ta seirak batera kontuan artuta, zazpiretatik lau izan ziran bizkaieraz berba egin ebenak eta iruk egin eben batuz edo gipuzkoeraz.

Ez dogu edesti au amaitu bearko, beste au esan bank: Entzuleak asko izan zirala, bear ba'da irureun inguru, eta geienak gazteak.

Giroa oso ona izan zan baiña maikideai azkenengo itauna egin jakenean, Bizkaierearen naiz euskera osoaren etorkizuna zelakoa ikusten eben izan zan galdera, geienak etorkizun illuna ikusten eben, Patxi Altuna bera agertu zan oso baiezkor.

Eta entzuleen itaunen artean gauza jakingarriak izan ziran. Guztiak aitatu ezin diran ezker, bat gogoratuko dogu: Bizkai'ko euskereak aurrera egitea nai ba'dogu idatzi egin bear dala bizkaieraz. Ez dogu egokitzen artzen bizkaitar askok artu dauan jokabidea, euren idazlanak (aldizkarietan, liburuetan...) batuz beti agertzea.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK